

NAZIOTASUN AITORMENA. NABOren urteroko bileran izandako hartu-emanen balorazio «oso ona» egin dute

Euskal diasporak herrigintzarako duen gaitasuna nabarmendu du Udalbiltzak

Estatu Batuetako euskaldunek EHNA «harridurazko poztasunez» hartu dutela dio Arkotxak

Xabin Makazaga | ASTIGARRAGA

Estatu Batuetan NABO euskal erakundearen urteroko bileran izan ondotik, «oso balorazio ona» egin du Loren Arkotxa Udalbiltzako Batzorde Eragileko kideak, han izandako hartu-emanen. Euskal diasporak naziozintzan «potentzialitate oso handia» duela esan zuen atzo Ondarroako alkateak, Astigarragako udaletxean eskaintako prentsaurrekoan.

Atzerriko euskaldunek lurraldetasun zentzua «oso barneratuta» dutela erantsi zuen Arkotxak, eta Euskal Herriko Nazio Aitormena egiteko aukerak «harridurazko poztasuna» eragin diela: «Hemen berezkozat dugu euskaldun izatea, baina EEBBetan, bigarren edo hirugarren belaunaldiko euskaldunek amestu ere ez zuten egiten euskal nortasunaren agiria izateko aukera».

Udalbiltzak, izan ere, Interneten bidez EHNA eskuratzeko aukera emango die diasporako euskaldunei, udalbiltza.net zerbitzariaren bidez. Los Bañosen (Kalifornia) EHNAren berri «interes handiz» hartu dutela esan zuen Arkotxak. Xiberoa 2010 plangintzaren berri ere eman zuen Udalbiltzak EEBBetan, eta ekimenak «oso harrera ona» izan zuen. «Pozik ziren, Udalbiltza buru-belarri egitasmo horretan sartu delako», esan zuen Arkotxak. Izan ere, inguru hartako euskaldun gehienek Ipar



AMAIA ZABALO

Loren Arkotxa, Oscar Goñi eta Eider Casanova, atzo, Astigarragako udaletzeko pleno aretoan.

LOREN ARKOTXA

Udalbiltzako Nazioarteko arduraduna

«Lurraldetasun zentzua oso barneratuta dute diasporan, eta horretan irakaspenik ere eman digute EEBBetan»

«Hirugarren belaunaldiko euskaldunek han amestu ere ez zuten egiten EHNA izateko aukera»

Euskal Herriko jatorria dutela erantsi zuen Arkotxak.

Diasporako euskaldunak Euskal Herrian bizi direnen halako bi dira, eta Udalbiltzak harremanak sendotu nahi ditu mundu osoko euskaldunekin. «Elkarlana eskaintzen diegu, Udalbiltzak garrantzi handia ematen baitio diasporari; beren aldetik ere, jarrera bera jaso dugu. Aniztasun handia dauka diasporak, eta itxaropen handiz begiratzen diegu Euskal Herriaren zati horri ere», esan zuen Arkotxak.

NABOren bilkuran jasotako «harrera beroa» azpimarratu zuen atzo Udalbiltzako kideak —eguraldiaren beroa azal beltzaranean nabari zitzaion—, eta, teknologia aurrerapenei esker diasporak Euskal Herriaren berri zehatza baduela onartuta ere, «harreman zuzena» izugarri eskertzen dutela erantsi zuen Arkotxak. Hemengo berri emateaz gain, irakaspenik ere jaso dutela esan zuen Udalbiltzako ordezkariak: «Hegoaldeko eta Iparraldeko jatorria duten euskaldunak han bat eginda daude,

eta elkarren hizkera ere ondo menderatzen dute». Lurralde zatiketarik gabeko elkarbizitza goraiatu zuen Loren Arkotxak. NABOko lehendakari Pierre Etxarrenek gisa berean hitz egin zuen Los Bañosen: «Hemen ez gara gehiago ez espainol ez frantses, denak euskaldunak gara».

Hego Amerikako eta Australiako euskaldunekin harremanak sendotzeko asmoa agertu du Udalbiltzak: «Euskal Herriaren zati bat da diaspora, eta elkar elikatzeko asmoa dugu».

TOPAKETAK

Kirola eta kultura aztergai Donostian

Udalbiltzak kirolari eta kulturari buruzko topaketa nazionalak egingo ditu, lehena ekainaren 16an eta bigarrena ekainaren 30ean, Donostiako Miramar jauregian. Topaketen helburua esperientziak trukatzeta da, «Euskal Herriko ikuspegitik bi alor horiek dituzten beharrianak aztertzea», Udalbiltzako Kultura arduradun Eider Casanovak atzo esan zuenez.

Kirolari buruzko topaketetan euskal kirol eta jokoak sustatzeko plan estrategikoa aztertuko dute, federazio nazionalen beharra eta sorrera hizpide izango dute, eta Euskal Herri mailako harremanak eta euskararen normalizazioa jorratuko dituzte.

Kulturari buruzko topaketetan, berriz, nazio identitatea, mezenazgoa, bilgune nazionalak eta kultura ezberdinetako komunitateak izango dira eztabaida bideratuko duten alorrak.

Bake Konferentzia bultzatuko dugu

Zure laguntza behar dugu:
sinadura
eta mila pezeta
902 42 10 10



Bake Konferentzia Conferencia de Paz

gauzak aldatzen hasteko aukera la oportunidad de empezar a cambiar las cosas

www.elkarri.org

Euskadiko Kutxa/Caja Laboral 3035 0198 68 1980008950

EH. Taldeak ordezkari bat bidaliko du EBko Lehendakariarekin biltzeko

Palestina eta Israelen arteko auzian «jarrera aktiboagoa» izan dezala eskatuko dio EHk EBri

Garbiñe Olaizola | DONOSTIA

EHk ordezkari bat bidaliko du Europako Batasunera Israelen eta Palestinaren arteko gatazkan «jarrera aktiboagoa» izan dezala eskatzeko. Suediako eta Belgikako lehendakariarekin biltzeko asmoa du —egun Suediak du EBko Lehendakari bat eta ekainean Belgikak hartuko du—. Horren berri eman zuten atzo Joseba Alvarez EHko Nazioarteko Harremanetarako arduradunak eta Koldo Gorostiaga EHko eurodiputatuak. Afera horretan «neu-

tralatasuna planteatzea jokabide politiko antidemokratikoa» dela adierazi zuen Alvarezek. Haren ustez, «ezin daitezke begiak itxi. EBk jarrera aktiboagoa izan behar du, eta Israel zigortu».

EHko ordezkariaren esanetan, bi herrialdeek ez dute egokiera bera. «Lurralde okupatu batean, Israel okupatzailea da eta Palestina okupatua. Batetik, Israelek Armada eta tankeak erabiltzen ditu erasotzeko eta, bestetik, Palestinak defentsarako jokabidea erabiltzen du». Gogoratu zuenez, Israelek ez ditu errespetatzen NBE Nazio Ba-

tuen Erakundeak Oslon sinatutako akordioak.

Bestalde, Koldo Gorostiaga bat etorri zen Jasser Arafat PAN Palestinako Agente Nazionalako buruzagiarekin. Arafatek esan zuen injustizia historikoa gertatu dela eta, horren aurrean, nazioarteko komunitatea lo dagoela. «Gatazkaren garrantziak hitz egiten da, baina ekimenetan ezer gutxi egin du nazioartekak», esan zuen. Bere ustez, EBk neutraltasunez jokatu du beti: «Erasoa hitza erabiltzen du Israelentzat eta ekintza terrorista Palestinarentzat».